

**Norbait zirikatzen duzu?
Hona hemen eskutitz bat zuretzat.**

Kaixo, zer moduz?

Orri honetan sartu bazara, baliteke zerbait gaizki joatea... segur aski badakizu zer egiten ari zaren. Irakurtzen jarraitu aurretik, esan behar dizugu agian birplanteatu beharko zenukeela egiten ari zaren gauzetakoren bat.

Pentsatzen lagunduko dizun bide bat erakutsi behar dizugu: jar ezazu zure burua zirikatzen ari zaren pertsonaren tokian eta egia esanez erantzun galdera honi: gustatuko litzaidake niri egitea ni pertsona horri egiten ari natzaiona?. **Bi erantzun baino ez daude: Bai edo Ez.** Zuri gauza bera egitea gustatuko balitzaizu, orduan, ez dago arazorik. Gustatuko ez balitzaizu, orduan, bada arazo bat. Gogoratu, bi erantzun baino ez daude. Erantzuna "EZ" bada, **gelditu behar duzu eta ez duzu pertsona hori zirikatzen jarraitu behar**, agian portaera bortitza izaten ari zara eta hori geldiarazi behar da. Kontuan hartu behar duzu zure ekintzen arduraduna zu zarela. Pentsatu al duzu zure buruari nahiz beste pertsoneri eragiten dizkien ondorioetan ?

Agian zure konfiantzazko pertsona heldu batekin hitz egin behar duzu. Horretara ez bazara ausartzen, guri deitzea baduzu. Bizikidetzarako Aholkularitzaren webgunean zaude. Cristina eta Txon gara arduradunak eta lagundu nahi dizugu. 900841551 telefonora deitu dezakezu. Doanik da. Deitzen duzunean ez bagaude, zure mezua utz dezakezu eta guk deituko dizugu nahi duzun telefonora. Ondoko helbidera idaztea baduzu: convive@cfnavarra.es, edo eskutitz bat igortzea ondoko helbidera:

Bizikidetzarako Aholkularitza / Hezkuntza Departamentua
Santo Domingo k., 8
31001 Iruña

Zurekin hitz egingo dugu eta elkarrekin pentsatuko dugu zer egin dezakegun. Zuk nahi baduzu, inork ez du jakingo ez deitu duzunik, ez idatzi duzunik.

Ez zaitetz isildu! Zuri laguntzeko gaude.

Jazarpenari buruzko informazioa eskuratzeko, begiratu ondoko webgunean:



<http://www.acosoescolar.info/>